# Iñigo Cabacasen heriotzatik zortzi hilabetera ez dago inputaturik

**Zortzi hilabete igaro dira Cabacasen heriotzatik, eta atzo hasi ziren epaitegian deklaratzen poliziaren kargan parte hartu zuten ertzainak, lekuko gisa, inputaturik ez baitago, herri ekimenak salatu duenez. Aresi «gezurti» deitu eta Lakuako Gobernuari polizia eredua goitik behera aldatzeko exijitu diote.**

Nerea GOTI | BILBO

Zortzi hilabete luze igaro dira Ertzaintzak jaurtitako gomazko pelota batek Iñigo Cabacas larri zauritu eta gazte bizkaitarra heriotzara eraman zuenetik, eta atzo hasi ziren deklaratzen epaitegian apirilaren 5eko gau hartan poliziaren kargan parte hartu zuten ertzainak, lekuko gisa, inputaturik ez baitago. Epaitegiko atean Iñigo Gogoan herri ekimeneko kideek elkarretaratzea egin zuten goizean, polizien deklarazioen aurrean protesta egiteko. "Iñigo justizia orain. Stop violencia policial" zioen pankarta baten atzean 30 bat lagun bildu ziren, "Ez zan istripu bat izan" edota "Ares gezurti" zioten txartelak erakutsiz. Ondoan, Athletic taldeko ikur batean itsatsitako Cabacasen argazkia eta "Pitu, gogoan beti" leloa zuen ikurra erakutsi zituzten hildako gaztearen lagun batzuek.




Iñigo Gogoan herri ekimenak protesta egin zuen atzo epaitegian, oraindik ez delako ardurarik argitu. Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

«Epaitegi honetan, gaur [atzo], hiritarren segurtasunaren bermatzaile *omen* direnek lekuko moduan deklaratuko dute. Lekuko? Non demontre daude inputatuak?», galdetu zuten herri ekimeneko kideek. Gogoan izan zutenez, zortzi hilabete eta gero, ikerketa judizialaz gain Aresek hitzeman zuen barne ikerketa inolako ardurarik argitu gabe itxi da, eta, Arartekoak, «zalantzarako tarterik uzten ez duen txostenean», gau hartan ertzainen jarduna «justifika ezina eta neurriz kanpoa» izan zela salatu du.

«Ez dugu ulertzen Barne sailburuaren aurrean maiatzaren 20an Memoria eta Bizikidetza Kongresuan protesta egin zuten gazteak pasa den astelehenean jada epaitu zituzten bitartean, oraindik nola ez dituzten akusatuen aulkian eseri horrelako nahasmen eta kaltea eragin zuten horiek», salatu zuten Iñigo Gogoan ekimenaren izenean Urtzi Ugalde eta Paula Castro bozeramaileek.

ASANBLADA IREKIA

**Asanblada irekia deitu du herri ekimenak urtarrilaren 17rako, Ekoetxean, 19.00etan, «bidegabekeria honi erantzun bat emateko eta Iñigo Cabacasen erailketaren urteurrenean omenaldia antolatzeko».**

**Ares eta Urkulluri mezuak**

«Harrituta uzten gaituzu zure ardurak saihesteko erakutsi duzun abileziagatik eta Ertzaintzaren buruzagi gisa harro-harro azaltzeko izan duzun lotsagabekeriagatik», esan zioten zuzenean Rodolfo Ares Lakuako Barne sailburu ohiari.

Urkulluren Exekutibo berriari, berriz, eredu poliziala goitik behera aldatzeko exijitu zioten, baita «ez dezala arma berririk sortu ezta herriaren aurka erabili» ere. Esan zutenez, «berdin-berdin zaizkigu *armen tamainak edo balen formak*». Polizia eredua aldatu behar dela adierazi zuten herri ekimeneko kideek, eta, bide horretan, hiritarren eskura eztabaidarako bitartekoak jartzeko eskatu zioten Administrazioari.

## Lakua publica una guía de fuentes vascas en el archivo del Vaticano

GARA | GASTEIZ

El Gobierno de Lakua presentó ayer la "Guía de fuentes vascas en el Archivo Secreto Vaticano", una herramienta con la que se pretende «simplificar» el trabajo de quienes investigan la historia vasca. En un comunicado del que se hizo eco Europa Press, el Ejecutivo explicó que el Departamento de Cultura impulsó la elaboración de esta guía con el objetivo de dar a conocer, a investigadores y al público en general, la documentación relativa a Euskal Herria que se encuentra depositada en el citado archivo.

Para su elaboración se creó un proyecto de investigación en el que participó un grupo mixto de investigadores de la UPV-EHU y del Consejo Superior de Investigaciones Científicas del Estado español (CSIC).

Lakua resaltó que cuando un investigador quiere estudiar en este archivo se enfrenta no solo al problema del «enorme» volumen documental, sino que además sus contenidos abordan «prácticamente todos los terrenos imaginables» de la actividad social. «Desde la renovación de un pequeño *beneficio en manos* de un clérigo local hasta las cuestiones de la más alta política circulan entre las letras de sus manuscritos», puntualizó el Ejecutivo.

# Adanero desvincula la fecha del Congreso de UPN de unas elecciones anticipadas

Martxelo DÍAZ | IRUÑEA

El secretario de Organización de UPN, Carlos García Adanero, justificó el adelanto de la fecha de celebración del Congreso de UPN, previsto para abril, al 17 de marzo en la imposibilidad de encontrar otra fecha libre. Al mismo tiempo, rechazó que este adelanto esté vinculado a unas elecciones anticipadas. «Que la oposición trabaje con ese horizonte, que hará un esfuerzo en balde», añadió.

Según explicó tras la reunión de la Junta de Portavoces del Parlamento navarro, se barajó el periodo entre el 15 de marzo y el 28 de abril para celebrar el congreso, que tendrá lugar en el Baluarte de Iruñea.

Teniendo en cuenta que el evento tiene que celebrarse en domingo, la Semana Santa limitaba las opciones, ya que las vacaciones escolares serían un obstáculo para su organización.

Adanero explicó que la posibilidad del 21 de abril tampoco era factible porque Baluarte tiene programado «un espectáculo muy interesante» para ese día. Según recoge la web de Baluarte, se trata de una representación del musical "Grease", una recreación de la película que John Travolta y Olivia Newton-John protagonizaron en los cines en la década de 1970.

El 28 de abril era otra de las jornadas dominicales a tener en cuenta, pero Adanero comentó que no era adecuada porque se celebra la romería de Uxue. «A otros partidos puede que esto les dé igual, pero para muchos de nuestros militantes es una festividad importante», destacó.

El 14 de abril acoge otra *festividad* –que no es el Día de la II República española–, por lo que tampoco era adecuada para el congreso de UPN. Según el calendario católico, esa es la conmemoración de los santos Tiburcio y Valeriano.

**Sopelanako Udala**
www.sopelana.net

IRAGARKIA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2012ko azaroaren 29an, hasiera batez onartu zuen Asu sektoreko D.3.1. eta D.3.3. orubeen xehetasun-azterlana, eta orain, iragarkia azken aldiz argitaratzen denetik hasita, hogei egunez jartzen da jendaurrean hasiera batez onartutako aldaketa. Etenda geratzen da Asu sektoreko D.3.1. eta D.3.3. orubeen lurraldeeremuko edozein motatako onarpenak, baimenak eta lizentziak ematea, gehienez ere urtebetez.

Sopela,
2012ko abenduaren 12a
ALKATEA

ANUNCIO

Aprobado inicialmente, mediante acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 29 de noviembre de 2012 el Estudio de Detalle de los solares D.3.1. y D.3.3. del sector Asu, se somete a información pública la modificación inicialmente aprobada, por el plazo de veinte días a partir de la última publicación. Queda suspendido por el plazo máximo de un año, el otorgamiento de toda clase de aprobaciones, *autorizaciones y licencias* en el ámbito territorial de los solares D.3.1. y D.3.3. del sector Asu.

Sopelana,
a 12 de diciembre de 2012
LA ALCALDESA